



Busturiko
Udala



Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
EGUNA / FECHA: 11/04/2018
HASIERA / INICIO: 19:55
AMAIERA / FINAL: 20:00

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA/ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
V́ctor-Martín Amparan ́lvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai - zerrendaren arabera, eta akordio proposamen hauek egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2018ko martxoaren 21eko saioko akta onartzea.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 21 de marzo de 2018.

2.- 2018ko Enplegu Planeko langileen hautaketa.-

Hutsik geratu zen lanpostua betetzeko hautagai gehiago aurkezteko beste epe bat ireki ostean, Tokiko Gobernu Batzordeak 2018ko Enplegu Planeko langileen hautaketa barruan aurkeztu eskaera bakarra balioesteko egindako proben emaitzen berri izan zuen. Hauxe, zehazki:

2.º.- Selección Plan de Empleo 2018.-

Tras la apertura de un nuevo plazo para que se presentasen nuevos aspirantes a la plaza que quedó vacante, la Junta de Gobierno Local fue informada del resultados de las pruebas realizadas para la valoración de la única solicitud presentada dentro del Plan de Empleo Local de 2018 y que es la siguiente:

	Guztira/ Total	Ordena / Orden
E. B. A.	31	1

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, E. B. A.ri sei hilez peoi kontratatzea erabaki zuen, apirilaren 16tik aurrera.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó contratar como peón para un periodo de seis meses, a partir del 16 de abril, a E. B. A.

3.- Abina Andoni Deuna auzoko Festak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, Abina auzoko San Antonio eguneko, ekainaren 13ko, festak ospatzeko, 2.100 €-ko kopurua gordetzea erabaki zuen.

3.º.- Fiestas de Abina Andoni Deuna auzoa.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó consignar una cantidad de 2.100 €, para la celebración de las fiestas del barrio de Abinaga, el día de San Antonio, 13 de junio.

4.- Euskara-zerbitzurako laguntza-kontratua.-

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, euskara-zerbitzu teknikorako Ahize-aeK enpresarekin laguntza-kontratua sina dadin onartzea, 14.431,00 €-an.

Kontratuak 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31rako indarraldia du, eta Udalari Euskararen Normalizaziorako eta Erabilerarako Plana egiten laguntzea du xede.

4.º.- Contrato de asistencia para el servicio de euskera.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el contrato de asistencia para el servicio técnico de euskera con la empresa Ahize-aeK, por un importe de 14.431,00 €.

El contrato tiene una vigencia de 1 de enero a 31 de diciembre de 2018, y tiene como objeto la asesoría al Ayuntamiento en la realización del Plan de Normalización y Uso del Euskera.



5.- O. B.-en idazkia.

Tokiko Gobernu Batzordeak O. B.ek aurkeztu dokumentazioaren berri izan zuen. Bertan, beraren egoera prekarioa azaldu du, baita 1570etik 1920ra Euskal Herrian bizi izandako irlandarrei buruzko ikerketa egiteko proposamena ere.

Ikerketa horri begira, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, B. jaunari hauxe adieraztea erabaki zuen:

1.- Beraren egoerari dagokionez, Udal honek gizarte-zerbitzuetako kontu guztiak Busturialdeko Mankomunitatearen esku utziak ditu, eta hark eman diezaioke, hala badagokio, eskatu duen laguntza.

2.- B. jaunak proposatu ikerketa ez da interesgarria Busturiko udalerrirako; beraz, udal honek ezin dio ikerketa hori egiteko laguntzarik eman. Beste erakunde batzuekin ere (Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia) ez du zerikusirik, B. jaunaren alde egin ahal izateko.

5.º.- Escrito de O. B.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de la documentación presentada por O. B. en la que informa sobre su precaria situación personal y sobre su propuesta de realizar un estudio sobre los irlandeses en Euskal Herria desde 1570 a 1920.

A la vista de ella, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó informar al Sr. B. de lo siguiente:

1.- Respecto de su situación personal, este Ayuntamiento tiene delegadas todas sus facultades en materia de servicios sociales a la Mancomunidad de Busturialdea, que es la que, si procede, le puede conceder las ayudas oportunas.

2.- La investigación que propone el Sr. B., no es de interés para el municipio de Busturia, por lo que este Ayuntamiento no puede darle soporte para su realización, y tampoco tiene influencia con otros organismos (Gobierno Central, Gobierno Vasco, Diputación Foral), para poder interceder en favor del Sr. B.

6.- Altamira-Tribiz bideari buruzko ikerketa-aurrekontua.-

"Altamira auzotik Bermeo udalerrirako eta Axpe auzotik Urkioberako bideen egungo egoera eta haiek egokitzeko beharrezko lanak" izeneko ikerketa egiteko Ingenieria Izarvi S.L.-k aurkezturiko aurrekontua ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, atzera botatzea erabaki zuen, garestiegizat jota, eta txosten hori Bizkaiko Foru Aldundiak bidea beretzat har dezan erabiltzeko aukerak urriak direlakoan.

6.º.- Presupuesto de estudio sobre camino Altamira-Tribiz.-

Visto el presupuesto presentado por la Ingeniería Izarvi S.L. para la realización de un estudio sobre el "Estado actual y obras necesarias para el acondicionamiento de las carreteras: B.º de Altamira hasta el límite con el municipio de Bermeo y B.º de Axpe hasta Urkiobe", la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó rechazarlo por estimar demasiado elevado su importe, y escasas las posibilidades de poder utilizar dicho informe ante la Diputación Foral de Bizkaia para que asuma como propio ese camino.

7.- C. F. P. P.ren aparkaleku-txartela.-

Ikusita Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak igorritako aldeko txostena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen C. F. P. P. jaunari eskaturiko ezinduentzako aparkaleku-txartela ematea.

7.º.- Tarjeta de estacionamiento de C. F. P. P.-

Visto el informe favorable emitido por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder la tarjeta de estacionamiento para minusválidos, solicitada por C. F. P. P.

8.- Busturiabai S.L.-ren proposamena, A.U.7 Etxezarre-Atxondon (7.1 barrutia) Hiri Antolamendurako Plan Nagusia aldatzeari buruzkoa.-

F. J. A. D.k aurkeztu A.U.7 Etxezarre-Atxondon (7.1 barrutia) Hiri Antolamendurako Plan Nagusia aldatzeari buruzko Busturiabai S.L.-ren proposamena ikusita, eta kontuan hartuta Udalean jada aurkezturikoaren oso antzekoa dela eta Tokiko

8.º.- Propuesta de Busturiabai, S.L. sobre modificación de Planeamiento General de Ordenación Urbana en el A.U.7 Etxezarre-Atxondo (Área 7.1).-

Vista la modificación propuesta de Busturiabai, S.L. sobre el Planeamiento General de Ordenación Urbana en el A.U.7 Etxezarre-Atxondo (Área 7.1), presentada por F. J. A. D., y, considerando que se trata de una propuesta de similares características a la presentada previamente en este



Gobernu Batzordeak 2016ko martxoaren 2an atzera botatzeko akordioa lortu zuela, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, akordio hura berrestea erabaki zuen, aurkezturiko proposamena atzera botata; horrez gain, A. jaunari zera jakinaraztea proposatu zuen: Udalaren irizpide errepikatua da (ez soilik kasu honetan) Plan Nagusiaren behin betiko onespeneren zain egotea, izapidetzean eta behin-behinean onarturiko dokumentua moldatzeko edozein proposamen aztertu baino lehen.

Ayuntamiento y que se rechazó por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 2 de marzo de 2016, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó ratificar aquel acuerdo, rechazando la propuesta presentada, e informar al Sr. A., que es criterio reiterado de este Ayuntamiento (no sólo en este caso), esperar a la aprobación definitiva del Plan General antes de analizar cualquier propuesta de modificación del documento, actualmente en tramitación y ya aprobado provisionalmente.

9.- Hirigintza-baimenak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, bidali txostena ikusita, hirigintza-baimen hauek ematea, bertan jasotako baldintzak bete behar izanda eta edukia eskatzaileari helarazita:

- P. V. L. (4/18 txost.), familia bakarreko etxearen berritze-lanetarako, Altamira auzoko 14.ean, 106,905,46 €-ko aurrekontuarekin (eraikinaren hegoaldean aurreikusitako itxitura salbu).

9.º.- Licencias urbanísticas.-

La Junta de Gobierno Local, visto el informe emitido, acordó, por unanimidad, conceder la siguiente licencia urbanística, que queda sometida al cumplimiento de las condiciones establecidas en el mismo, de cuyo contenido se deberá dar traslado a la solicitante:

- P. V. L. (Expte. 4/18), para la reforma de vivienda unifamiliar, en el barrio de Altamira n.º 14, con un presupuesto de 106.905,46 € (salvo lo relativo al cierre previsto en el lado sur del edificio).

10.- Itxasbegiko itsas haztegia.-

Itxasbegiko antzinako otarrain-haztegia okupatzeko Udal honi emaniko itsaso eta lehor arteko jabari publikoko 48 m²-ko emakida agortu egingo dela dioen Eusko Jaurlaritzako Kostalde Mugapenak igorri idazkia ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, emakida-epea luzatzeko eskaera egitea, instalazioak interes publiko handia duela koan, eskoletako ikasleek eta Urdaibaiko Ekoetxeko (Madariaga Dorrea) erabiltzaileek erabiltzen baitute.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudana idazkariak sinatuta.

Alkatea/El Alcalde,

10.º.- Langostero de Itxasbegi.-

Visto el escrito remitido por la Demarcación de Costas del País Vasco sobre la extinción de la concesión otorgada a este Ayuntamiento de 48 m² de dominio público marítimo terrestre, con destino a la ocupación de un antiguo vivero de mariscos (langostero o cetárea) en la zona de Itxasbegi, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar la ampliación del plazo concesional por considerar que la instalación tiene un claro interés público, ya que se viene utilizando habitualmente por alumnos de los centros escolares y usuarios de los servicios del Centro de la Biodiversidad de Euskadi-Ekoetxea Urdaibai (Torre Madariaga).

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Izp./Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea

Izp./Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez